

"SATARKA" olerkariaren heriotzean

Hazilaren* 23an hil zen Klaudio Sagartzazu «Satarka» olerkaria* Ondarrabian. Herri berean jaioa zen 1895. urtean.

Gazte denboran ainitz* sari eraman zuen. 1918 eta 1920.ean, Donostiako olerki* sariak jaso zituen, eta garai berean mugazandiko lholdin ere bai. Sari ongi mereziak noski,* zeren,* dudarik gabe, «Satarka» lirikaren lehen urratzaileetakoa baitugu euskarazko literaturan. Luis Jauregi «Jautarkol» baino lehenagokoa, eta, honekin batean eta Aitzolen inguruan, 1930.ean «Euskaltzaleak» izeneko olerki berrizte mugimenduaren eragileetako bat noski.

Agiri zehatzagorik ematen ez bada, «Satarka» jarriko nuke garai haren hasieran. Saritutakoei beste zenbait* poema gehituaz, Victor Hugo eta Heine-gandik itzuliak ere tartean direla, liburu polit bat burutu zuen, 1922.ean Donostian Txinpartak izenez agertu zena.



Klaudio Sagartzazu
"SATARKA"
 ("Ayalde"-ren dibujoa)

Gaztaroko poema hoik* aberrikoi sutsuak dira maiz,* eta, Bidasoa aldeko artistek berezko duten bezala, Naturaren laudoriozkoak maizago. Baroja nobelista handiari ere, beste eskualde* batzuetako abertzaleek garai haie-tan uxatzen zutelarik, hitz ederrik eskaini zion gorazarrez,* haren ospeari begirapen onez:

Yauregi eder
 Antziñakoan,
 Gizon txit yakintsu bat bizi da.
 Bidasoa'ko
 Txapelaundia,
 Edestizundari* ezaguna.
 Udaberriko
 Arratsaldean,
 Bera'ko urira* naiz etorri,
 Ta leku alai
 Au ikusirik,
 Agur dagiot gaur Baroja'ri.

Bidasoako txapelaundi jakintsua, beraz, ez zen euskaltzale eta abertzaleen artean ezezaguna eta maitagarria.

Baina lehen liburu hartako poemarik ezagunena, se-guru asko, «Aurtxo seaskan» izango dugu noski.* Poematzu hau, sehaska kanta, Olaizolak musika jarri zionetik, oso ezaguna baita Euskal Herri guztian, haren hasierako eta amaierako* bertsoak behinik behin. Ama askok beren haurtxoei ehundaka aldiz kantatua noski:

Aurtxo polita
 Seaskan dago,
 Zapi zuritan
 Txit bero...
 Amonak dio:
 Ene potxolo,
 Arre egin, ba,
 Lolo, lo...
 Txakur aundia
 Etorriko da,
 Zuk ez ba'dezu
 Eiten lo.
 Orregatik, ba,
 Ene potxolo,
 Egin aguro*
 Lolo, lo...

Beharbada, ez da izango hain pedagogikoa; baina, besterik ez zegoen garaian, zerbitzu ederrik eman zien ama euskaldunei, semetxoak lotara baretzeko. Praktika-rako baliatu ziren, eta ez da guti.

Haren bigarren liburua, **Intza begietan**, Donostian argitaratu zen 1957.ean, Manuel Lekuonaren hitzaurreakin eta Antonio Valverderen irudiekin. Liburu atsegina. Beharbada, atzean gelditu zèn poesi era batean moldatua; baina, etorri zèn garaian, ez zen erraz besterik egitea. Bai euskara bera eta bai poesi hizkuntza, gaztaroko Txinpartak liburukoak baino landuagoak ditu. Poemarik gehienak, liburua agertu zèn urtea baino askozaz lehenagokoak dira.

Bi liburuak agortuak badira ere, bigarrena, oraintsua-gokoa denez, ezagunagoa da.

Euskarazko literatura murriztean* bere toki berezia merezi duen poeta dugu, eta samurki* begiratzeko merezimenduak dituena. Honegatik nahi izan dugu, haren oroitzapena orri hauetara ekartzea.

Hark kunplitu zuen bere herriarekin, eta denek ezin dezakete horrenbesterik esan.

JUAN SAN MARTIN

dagiot, egiten deusat,
 egiten diot
 dezakete, daikee
 dio, diotso (diotsa)
 zien, eutsen
 zion, eutson